

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Markuleta Lete

*Oñati,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea



Biografia



Olabarrieta auzoko Baxazabal baserrikoa. Ama Aretxabaletakoa zuen. Sei anai-arreba ziren, lau neskak. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Arantzazu auzoko [Mila Maiztegi](#) eta [Belen Zumalderekin](#) batera. Maria Jesusek etxean ez du hika egin izan, eta Olabarrietako lagunekin ere ez. Seme-alabei zuka egiten die. Arantzazu eta Araotz auzoetako emakumeen eraginez hasi zen hika egiten.

Zintak

ONA-242

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-07
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

ONA-243

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-07
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Maria Jesus eta hika

- **Erref:** ONA-242/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amak agintzean hika erabiltzen zuen, aitak, ordea, ez. Maria Jesusek ez zien gurasoei hika egiten, errespetu falta zelako.</p>

2. Hika: orain gaztetan baino gehiago

- **Erref:** ONA-242/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gaur egun gehiago egten du hika gaztetan baino. Seme-alabei ez die transmititu.</p>

3. Olabarrietan hika gutxi

- **Erref:** ONA-242/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:56. **Bukatu:** 00:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mutilek euren artean hika egiten zuten, baina ez du oroitzen neska-mutilak euren artean hika aritzen zirenik.</p>

4. Klean hizkuntza ohitura desberdinak

- **Erref:** ONA-242/016
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:18:16. **Bukatu:** 00:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Auzotik kalera (Oñatira) jaitsitakoan hizkuntza ohiturak aldatu zitzaizkien, bai hikari eta bai euskarari dagokienean. Euskaraz egitean 'las caseras' deitzen zieten.</p>

5. Baserritarra izateagatik burla

- **Erref:** ONA-242/017
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Auzotik kalera jaitsitakoan, baserritar izanagatik seinalatu egiten zituzten. Eskolan beti erdaraz ikasi izan zuten. Burla ez egitearren, erdaraz hitz egiten zuten, baina gaizki.

6. Erdararik ez jakitean, muga asko

- **Erref:** ONA-242/019
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:21:59. **Bukatu:** 00:23:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Erdararik ez jakiteak mugak jartzen zizkion jendeari, esaterako, medikura joateko garaian, askotan ama lagundu behar izaten zuten.

7. Euskaldunak erdara hutsean

- **Erref:** ONA-242/021
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jende mordoan, gaztelania ikasi eta gaztelania gutsean egiten hasi zen, baita etxean ere. Behin ohitura hartuta, aldatzea oso zaila da.

8. Hika modan?

- **Erref:** ONA-242/023
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:25:23. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ez die inork hika ez egiteko eskatu, kontrara, gaur egun moda-modan dagoen kontua da, gehiago baloratzen da.</p>

9. Nork erabiltzen zuen hika?

- **Erref:** ONA-242/025
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:27:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gizonek erabiltzen zuten batez ere, kalean zein auzoetan.</p>

10. Seme-alabei hika egiten al diezue?

- **Erref:** ONA-242/028
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:29:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika, egitekotan, semeei egiten diete, alabei egitea asko kostatzen zaiela diote.</p>

11. Zergatik galdu da hika?

- **Erref:** ONA-242/029
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:03. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Transmisio faltaren ingurukoak. Ohiturak, hikaren erabilera inkontzientea.</p>

12. Emakumeek gehiago egiten zuten erdaraz

- **Erref:** ONA-242/031
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:30:22. **Bukatu:** 00:32:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Erdaraz gehiago egiten zuten emakumeek, baserritarrek izateagatik emakumeei egiten zitzaielako burla, eta ez gizonei. Euskara gizonek gorde duten bezala, hika ere beraiek mantendu dute. Gizonezkoen elkarteek ere ez dute lagundu. Gizonak eta emakumeak ez ziren berdin baloratzen.</p>

13. Noiz erabiltzen da hika?

- **Erref:** ONA-242/033
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:35:47. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lehenengo hitza nolakoa, handik aurrerako jarduna halakoa izango da. Ezezagunekin zuka, inguruko betidaniko jendearekin hika.</p>

14. Animaliekin hika, landareekin zuka

- **Erref:** ONA-242/035
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:38. **Bukatu:** 00:39:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Animaliekin hika, landareekin zuka. Norberaren buruarekin hika, baina batzuetan mutilen forma erabiltzen du Maria Jesusek.</p>

15. Zer da hika zuentzat?

- **Erref:** ONA-242/037
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Normaltasuna, konfiantza, parranda giroa, errebelde izatea, ondo pasatzea...</p>

16. Hika, hizkuntzaren beste arlo bat

- **Erref:** ONA-242/039
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:41:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika galduko balitz pena sentituko lukete. Hizkuntzaren beste arlo bat da beraientzat hika, gramatikalki oso aberatsa den tratamendua.</p>

17. Galtzak lehen aldiz

- **Erref:** ONA-243/002
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Maria Jesusek Parisen erosi zituen lehen galtzak. Belenek, ordea, galtzak txikitatik jarri izana gogoratzen du. Milak hamasei bat urterekin erosi zituen lehen aldiz. Gizonak larritu egin ziren emakumeak galtzak jartzen hasi zirenean. Oñatiko hitanoa.</p>

18. Lehenengo labadorak

- **Erref:** ONA-243/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Belenek betidanik ezagutu izan du labadora, Milak eta Maria Jesusek, ordea, ez. Eskuz eragiten zitzaion garai batean labadorari. Oñatiko hitanoa.</p>

19. Gizonezkoen lanak, gogorrangoak?

- **Erref:** ONA-243/004
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Etxeko zein baserriko lanen banaketa. Belenen etxean, emakumeek gehiago egin dituzte etxeko lanak gizonek baino. Etxean emakumeak bakarrik zeudenean, ordea, emakumeek egiten zituzten egin beharreko guztiak. Oñatiko hitanoa.</p>

20. Emakumeen sozializazioa: meza eta erosketak

- **Erref:** ONA-243/006
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:11:59

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakumeen sozializazioa betebeharre loturik egon ohi zen, mezari eta erosketari hain zuzen. Izan ere, berriketan aritzeko aitzakia ziren horiek. Mezara joan beharra. Oñatiko hitanoa.</p>

21. Eskolan denak batera

- **Erref:** ONA-243/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Arantzazun neska-mutilak batera egoten ziren eskolan, Araotzen, aldiz, ez. Olabarrietan denak batera aritzen ziren txikitaan, baina behin eskola nazionalean sartuta, ez. Mezetan gizonak batetik eta emakumeak bestetik.Oñatiko hitanoa.</p>

22. Umetako jolasak

- **Erref:** ONA-243/010
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:15:27. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Maria Jesusen kasuan, Olabarrietan, denak batera jolasten ziren txikitan. Sokasaltoan, sakaponetan, zankarrankatan... neskak bakarrik aritzen ziren. Mutilekin batera harrapaketan, txorro-morrora, pote-poteka... Oñatiko hitanoa.</p>

23. Erromeriak: zeinek kalabaza gehiago eman

- **Erref:** ONA-243/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Erromerietan neskak neskekin aritzen ziren dantzan, eta mutilak hurbiltzen zitzaizkien dantzan egitera gonbidatzeko. Kalabaza mordoa ematen zuten. Oñatiko hitanoa.</p>

24. Ezkondu aurreko sexua bekatu

- **Erref:** ONA-243/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:22:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakumeek sexu-harremanak izatea gaizki ikusirik zegoen, gizonak izatea, aldiz, ez. Bekatua bazen ere, nobiotan eta ezkontzeko asmoa izandakoan bakarrik izaten ziren harremanak. Oñatiko hitanoa.</p>

25. Gizonak tabernan, emakumeak kafetegian

- **Erref:** ONA-243/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:09. **Bukatu:** 00:23:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Domeketan kafetegira joaten ziren neskak, baina ez tabernara. Tabernara sartzekotan, gizonekin batera sartzen ziren. Oñatiko hitanoa.</p>

26. Gizakumeek askatasun handiagoa

- **Erref:** ONA-243/016
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:23:14. **Bukatu:** 00:26:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakumeek duten askatasuna, gauez bakarrik ibiltzea, presioa... Belenen kasuan, semearekin gehiago hitz egin du gaiaz alabarekin baino. Oñatiko hitanoa.</p>

27. Haurdunaldiak ezkutatu egiten ziren

- **Erref:** ONA-243/018
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:28:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Inguruan haurdunaldiak ezkutatzea bizi izan du Belenek, batez ere, ezkontzatik kanpokoak zirenak. Oñatiko hitanoa.</p>

28. Garai bateko familiak, handiak

- **Erref:** ONA-243/020
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Seme-alaba gehiago izaten zituzten garai batean, euren belaunaldian gutxiago. Adopzioa ere oso ohikoa zen. Oñatiko hitanoa.</p>

29. Gizonaren baimenik gabe, ezer egiterik ez

- **Erref:** ONA-243/022
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Behin ezkondata, emakumeak senarraren baimena behar izaten zuen edozein jarduera ekonomiko burutzeko. Horregatik, ezkondu aurretik egiten saiatzen ziren denak. Franco hil zenean, kendu egin zituzten neurri hauek. Oñatiko hitanoa.</p>

30. Emakumeek 'Zerbitzu Soziala'

- **Erref:** ONA-243/024

- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Pasaporte eskuratzeko zerbitzu soziala egin behar izana. Eskolan laboreak. Oñatiko hitanoa.</p>

31. Zer egin noka berreskuratzeko?

- **Erref:** ONA-243/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mintzapraktikak, tertuliak, irakaskuntza formala... Oñatiko hitanoa.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com